


HIRUHILEROKO KONTU EKONOMIKOEN AURRERAPENA (HKEA). II/2024

Euskal AEko BPGd % 0,4 hazi da eta enplegua % 0,6, 2024ko bigarren hiruhilekoan

2023ko bigarren hiruhilekoaren aldean, bai BPGd bai enplegua % 1,8 igo dira

Euskal AEko Barne Produktu Gordina (BPGd) % 0,4 igo da 2024ko bigarren hiruhilekoan aurreko hiruhilekoaren aldean, Eustatek Hiruhileko Kontu Ekonomikoen Aurrerapenean egindako zenbatespenen arabera. 2023ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, Euskal AEko BPGd hazi egin da eta % 1,8n kokatzen da.



Aurrerapen hau egiteko unean eskura zegoen koiunturako informazio ekonomikoaren arabera, urteko bigarren hiruhileko honetan Euskal AEko ekonomian ikusitako urte arteko hazkundera zerbitzuen sektorearen bilakaeran oinarritzen da batez ere.

Enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan neurtuta, 2024ko bigarren hiruhilekoan % 0,6 igo da aurreko hiruhilekoaren aldean. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, hazkundera % 1,8koa da.

Datorren irailaren 24an, Eustatek BPGd-aren eta enpleguaren zenbatespen bereiziak argitaratuko ditu 2024ko bigarren hiruhilekoko Hiruhileko Kontu Ekonomikoetan, Aurrerapen hau egiteko unean eskuragarri ez dagoen koiuntura-informazioa erantsi ondoren.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62